



AKELARRE - N. Basterretxea



## EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpiritua agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN

**bbk**

# MAHATSERRIKO ALD ZKARIA

# beirtn

Lege gordailua: BI-85-98

2001ko OTSAILA 30. zkia.  
125 pzta.

## Onintze Salazar

*“Meteorologok hurrengo egunetako eguraldia askotan igartzen dugu”*

*Santa Ageda  
lehengo legean  
Santa eskea  
baserri, baserri*

*SOS arrazakeria, gizarte  
sensibilizatzea helburu*


*Montañoko Garamendi  
Saskibaloitza Taldea*






# HILEKO ARGAZKIA

Iñigo Azkona



berton



# AURKIBIDEA

ERROTOKOAK

- ▶ Iritzia .....4
- ▶ Ageda Eskea .....5
- ▶ Begoña eta Euskerea .....8
- ▶ SOS Arrazkeria .....10
- ▶ Azterketarako Txuletak .....12
- ▶ Betikoak .....14

- ▶ Bakarka: Onintze Salazar .....15
- ▶ Mahatsberriak .....20
- ▶ Hezkuntza .....24
- ▶ Kirolak: Montañokp saskibaloia .....26
- ▶ Mendi Ibilbidea. ....27
- ▶ Kultura: Astrologiazaleak .....28

Listo! Hiru urte pasau direz, oraintxe. 98ko zezeilen urten zauen lehenengoak, eta honegaz 30 (kontuek ez dostie urteten, baiee...). Ba, jakin ixen dot Santutxun euskerien astie egin gure dauriela batzuek, ta esan gure deutziet Bertonek bentaja elegantie atara deutzuela: hiru urte astebetie kenduta esatamentien. Beraz, arrankau ein bierko dozue honeik atrapau gure badozue. Ze honenak direz euskerien hiru urtiek, ta ondiñokarren akabau barik.


Dana dala, asko dabiltzez hamen gora begire: batzuek Santueri kantetan, beste batzuek ixerreri begire teleskopioak ta halangoakaz, ta beste batzuek aber zelango denborie dakarren.

Ta denborie ekarri, eskasa dakarsku, Santa Agedako eguzkidxe joan ta edurre etorri jaku karnabalen bueltan, ta maietz partien tenporala ei dakar. Iguel handik aurrera euskerienak egin biherko direz minutuek, astiek eta urtiek egin biharrekoan. Ta rebistak, Tejero ta enparauek pasako doskuezanak, hareitxek ikusiko doguzen rebista bakarrak. Enfin, leiduxue Berton hau, ze honeik gauza guztidxe kontaten direz, ta gehidxao bere bai, ta astebetie emoten badozue leiduten, hortxe euskerien astie. Hobeto hilebetie emoten badozue, holan akabau orduko barridxe eukingo dozue, ta bata bestien atzetik, urtiek bere pasaten direz, honeik hirurok pasau direzen modure.



## BEGOÑAKO ARBOLANTXA

### BIDEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako aurkintza hau Mikoletako mendi-barrean dago, Otxarkoagako poligonoaren ganean. Bide hau auzo bereko lanbide heziketa eskolaren ertzetik doa; izan bere, etxe horretan hasten da Arbolantxa bidea eta Azkarai bideraino doa. Itxura dan legez, toki-izenak arbolatxu arantzatsuak aitatzen ei dauz. Bigarren karlistaldian zehar borroka batzuk suertatu ziran inguru horretan. Arbolantxa bideak ez dau

loturarik Abandoko San Bizenteren eleizaren ondoran dagoan Arbolantxa kaleagaz. Kale horrek parrokia horretan dau hasikerea, eta Mazarredo zumarkaleraino heltzen da. Kale honen izenak ontzi-jaube, ontziko gudaburu eta merkataria haundikiak aitatzen dauz; egin-eginean bere, abizen hori euki eben Diego López, Juan Sánchez, Martín Sánchez, eta Juan eta Pedro Arbolantxakok. Horreek guztiak euren oinetxea Abandoko eleizatearen aurkintza honetan euki eben, errekatik hur. Etxea atzera eraigi eban Pedro Arbolantxakok 1757. urtean. Pedro honek lotura hartu eban Errotaetxetarrakin. Dan-dana 1874ko karlistaldian galdu zan.

**GOTZON LOBERA  
REVILLA**

## BILBOKO UDALARI KUKU

Otsailak 23, ostiral mehea da ihauterietan. Bilboko udaletxean bes-telako iritzia dute. Ihaute-riak soilik ospa dezakete udalak berak nahi dituztenek. Goazen harira. Urtero legez Txurdinaga eskolakoek ostiral meheburu eta merkataria haundikiak aitatzen dauz zuten inguruko kaleetan zehar: Ondarroa, Fernando Jimenez eta Julian Gaiarre... Horretarako gogo handiz mozorroak prestatzen ibili ziren azken asteetan. Ezustekoa etorri zen asteazken goizean udaltzain bi eskolara etorri zirenean. Mezu garrantzitsua zekarten. Udalak debekatua zuten Txurdinaga eskolaren desfilea. Alferrik izan ziren eskolaren zuzendaritzatik hori konpontzeko eginiko ahaleginak; hamaika telefono dei, bide alternatiboak propo-


satu, ordutegia aldatzeko posibilitatea eskaini. Dena alferrik izan zen. Arrazoi makurragorik ezin zuten topatu. Dirudienek, hemendik aurrera astegunetan ezin da errepiderik moztu. Zinikoak halakoak!!! Bien bitartean Udalak berak antolatu eta aurrera eraman zuten umeen desfilea Bilbo erdian, Albiatik Plaza Berriraino. Horientzat jakina holako debekurik ez dago. Badakizue hemendik aurrera aitzakia horren pean Udalak nahi ez duena edo gustatzen ez zaiona debeka dezake.

Lotsagarria, benetan, udal agintarien jokabide itxia. Agerian utzi dute zelako begirune txikia duten herri-tarrek eta zelako jendilajea daukagun agintari.

**ALBERTO UGARTE**

## SANTA AGEDA LEHENGO LEGEAN

Bertso Eskolak eta Asapalak  
Santa eskea baserriz baserri egin eben



**Testua: Erdoitza Martinez**

**Argazkiak: Matsorriano**

Gurean urteroko ohiturari eutsiaz Santa Eskea ospatu zan Santa Ageda bezperan. Igaz Santutxuko Bertso Eskolako lagunek Asapala euskara elkartearen laguntzaz auzoko taberna euskaldunak baserri lez hartuta tabernariak eta bertan egozanak euki ebezan koplagai. Aurten ohitura zaharrak atzera indarrean iminteko ideia hartu dabe. Bertso eskolako koplariak Asapala Kultur Elkarteko kide-akaz batera Arbolantxa aldeko baserrietara hurreratu ziran goiza kantu eta bertsoez alaituteko prest. Goizean goizik AEKren Santutxuko euskaltegian alkartu ziran lagun guztiak janzkera aproposa soinean eroela: baserriar arropak, koloredun zapiak eta lastozko txapelaz. Azken hauek aratuste ikutua emoteko-edo. Agertu bezain pronto apur bat entsaiatu, aurtengo koplak buruan ondo gorde eta baserrietarako bideari ekin eutsoren. Oinez ala autoz etxeraino joan, korroa osatu eta koplak baten bidez etxeko jaun edo andreari kantetako lizentzia eskatu. Horixe izaten zan lehenengo pausoa. Behin

lizentzia hartuta, bertsolarien jarduna eta gainerakoek kantuak etozan segituan, etxeok etartean bertan entzuten eben bitartean. Koplalarien esanari gehienetan barrika erantzun eben, baina ez zan ez malkorik ezta erantzun bertsoz falta izan.

Giroa sano polita izan zan eta, zelan ez, baserriarren ongi etorria beroa. Hasieran eskaleak diruzorroa beteta baina samea siku ibili ziran harik eta dirua barik txakolina atara eutsoen arte. Sei baserri bisitatu ostean Otxarkoagako Josetxo tabernara eta Garaizar kafetegira arrimatu ziran kantu kantari. Sabelak goraino beteta baeuken be, Garaio txokora hurreratu ziran bazkaria egiteko asmoagaz. Postrearekin batera tabernen eta triki-bertso-poteoaren ordua ailega zan. Holanik, Santutxu bazterrik bazter ibili ziran koplariak euren kantakaz, eguzkiak egun luze-ari agur esan eutson arte. Baten batek oraindino entzungo dau buru barruan Begoñeko Santa Agedako kantu: "Bedeinketua izan deitela/etxe honetako jentie..."

**Bizkaiko Foru  
Aldundiko  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**

**ARGITARATZAILEA:**  
Batana Batu Kultur  
Elkartea

**ERREDAKZIOA:**  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta:  
berton@euskalnet.net

**ZUZENDARIA**  
Hektor Ortega  
**ERREDAKZIOA:**  
Arrate Diez,  
Joana Etxebarria, Irune  
Berro, Iratxe Ruiz,  
Erdoitza Martínez  
Unai Cuevas

**ARGAZKIAK:**  
Iñigo Azkona eta  
Xabier Herrera

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
Iñaki Berastegi,  
Joseba Barrenetxea

**KOLABORATZAILEAK:**  
Jaione Letamendia, Itxaso  
Perez, Alberto Ugarte,  
Iñaki Gaminde, Igor M.  
de Vidales, Santutxuko  
Bertso Eskola, Iñaki  
Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,  
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA  
PUBLIZITATEA:**  
Koldo Urrutikoetxea,  
Zuriñe Martinez

**LEGE GORDAILUA:**  
Bi-85-98

**ALE KOPURUA:**  
1.200



**IRUDIA SORTZEN DUGU  
BILBO**

Santutxu kalea, 46  
Tfnoa: 944 333 935 www.bilbaoeb.com/Spedro  
Santutxu kalea, 37 E-Mail: iban.lopez@navegala.com  
Tfnoa: 944 128 714

**HORTZ KLINIKA  
GERMÁN BERGARETXE**

**GABRIEL ARESTI, 30 4. G  
TXURDINAGA**

**94 412 82 74**

**CYBER TIME**  
Ordenagailua gurea da  
ideiak, zureak

Sarean jolasak  
Internet  
Inprimaketa  
Eskanerra  
Datu grabaketa...

Aita Pernet, Tfnoa/faxa: 94 459 74 06  
48004 Santutxu E-mail: cyber-time.euskalnet.net  
Bilbo http://www.cyber-time.euskalnet.net




# BILBON SANTA AGEDA ESKEAN BASERRIZ BASERRI

**ETXARTE BASERRIA.** Santa Marina kamiñoan. Hemen hasi zan Santa Eskea. Lehenengoa izateagaitik edo nerbioengaitik eskaleak oraindino ez egozan behar bezain ondo. Etxeko andrak emon eban kanturako lizentzia. Eta dirua ez eze diruzorrorako saku handia be ekarri eban. Urtebeteko eskea beharko zan ha betetzeko.



**ATXETA BASERRIA.** Martina Aurre etxeko andrak emon eban kantetako lizentzia. Santa Agedako koplakaz batera bertsolariak Martinaren seme Kepa, egun Parisen preso daukena, gogoan euki eban. "Santa Agedako gure bertsoak/Keparentzat dira eta", kantatu eban. Martina, hunkituta, ezin izan eutson negarrari eutsi. Azkanean bertsolariak besarkada bana eta diruzorroa loditzeko sosak emonda despeditu eban multzo kantaria.



**ETXEZURI BASERRIA.** Martin Mentxakatorre etxeko jaunak hartu ebazan eskaleak eta kanturako lizentzia emon eban. Bertsolariak, Martin ganadu ferietara sarritan joaten dala jakitun, azokaren gorabeherak aitatu eutsoezan.




**MIKAELARENA.** Sorpresaz hartu eban Santa Eskeko moltzoa. Soloan ebiltzan hazilekuan zeozer ereiten eta eskaleak hortxe bertan egin eban kantua. Etxeko andra Mikaela Aurrekoetxeak emon eban lizentzia. Bertsolarietako bat familiartekoa izateagaitik edo, dirua ez eze ardao botila bat be atara eutseen koplarietara.

**GOIKOETXE BASERRIA.** Karmelo Elorriaga etxeko jaunak emon eban kantetako lizentzia. Hari batutakoa da Begoñeko Santa Ageda kantua. Eskea antxine egiten zan moduan egiteko zuzenketarik be agindu behar izan eban. Behin bertsolariak jardunean hasita hara non Karmeloren familiko bat koplatan erantzuna emon eban. Modu ederrean emon be! Baietz han egozan danak aurten belodromoko finalean Egañaren alboan egon!



**ETXEPINTO BASERRIA.** Josu Agirre etxeko jaunak hartu ebazan Santa Agedaren kantariak. Zer esana emon eban eskaleei txakolina atara bai baina Begoñekoa barik nongoa eta Bakiokoa! Zenbat diskusino eta barriketako ordu luzeak alperrik galduta! Begoñeko baserrietan Bakioko txakolina ataraten badabe... Halan da guztiz be, txarra zanik be ezin esan eta...









# SOS ARRAZAKERIA, GIZARTEA SENTSIBILIZATZEA HELBURU

Solokoetxeko lokal batetik antolatzen du talde honek etorkinen aldeko eta xenofobiaren aurkako bere lana

Testua: Joana Etxebarria  
Argazkiak: Luis Jauregiartzo

Aspaldi honetan puri-purian daude etorkin eta arrazakeriarekin lotutako arazoengatik. Hau dela eta arlo honetan lan egiten duen talde batekin kontaktuan jarri gara euren ikuspuntuaren berri eman diezaguten. Solokoetxeko lokal batean SOS Arrazakeria taldea dago eta orain dela hamar bat urte ireki zituen

ateak. Hau nazioarteko erakunde plurietnikoa da eta arrazakeria eta xenofobiari aurre egin nahian dihardu lanean.

Bere aldarrikapenetan errespetu, norberaren kultur bilakaera eta berdintasunean eta aniztasunean oinarrituriko elkarbizitzari so egiten diote. Bestalde, arreta handia jartzen dute sentsibilizazioaren arloan. Diskriminazioak ekiditeko helburuarekin gizarte sektore guztien sentsibilizazioa eskatzen da. Gainera, bestelako kultura eta etnien partaide izateagatik jasotako eraso eta bortizkeriak salatzen dituzte. SOS Arrazakeriak elkarbizitzan azaldutako gatazketan bitartekari lana egiten du kultur ezberdinetako lagun arteko harremanak bultzatuz.

## FUNTZIONAMENDUA

Erakunde honek asanblada bidezko mugimendu sozial gisa funtzionatzen du. Ez dago buruzagi edo estrukturarik eta kide guztiak bolondresak dira. Asteartero laguntzaile guztiak biltzen dira eta orduan gaiak eztabaidatu eta erabakiak hartu egiten dituzte.

Finantziarioari dagokionez, ez dago inolako dirulaguntza izugarririk. Baliabide ekonomiko nagusia sozioen kuotak izan ohi dira. Egun, gurean 150 sozio inguru daude. Hogeita bosten bat lagunek zereginetan gogotsu



laguntzen du. Dena den, edonork har dezake parte erakunde honetan bai zuzenean lan egiteko gogoak daukanak eta baita ere laguntza ekonomikoa eman. Badi-rudi, diru eta jendearen premian daudela; beraz, gai honen inguruan kezkatuak dagoenak badauka nora jo.

## JATORRIA

SOS Arrazakeria mugimendu sozial gisa jaio zen. Sistema zalantzan jartzen du eta gertaera zein lege diskriminatzaileen kontra borroka egiten du. Lehenago aipatu legez sekulako garrantzia ematen dio gizartearen sentsibilizazioari.

Bestalde, talde honek beharrezkotzat jo zuen etorkinentzako zerbitzu batzuk eskaintzea eta arazo hori dela medio bulegoa ireki zuten informazioa eskaini eta salaketak egin ahal izateko. Asistentzia juridikoa ematen

dute bertara gerturatu diren etorkinei.

Urtero-urtero 300en bat kasu gestionatzen dira zuzenean; hau da, kasuaren jarraipena eginez. Honetaz gain, asko dira telefonoa erabiltzen dutenak eta milaka dira bertara dudu-mudak argitzeko edota laguntza eskatzeko deitzen dutenak. Paperik gabe, nora jo eta zer egin ez dakien pertsona etorkin bat kontu-kontari hasten denean ez ohi du paper edo egoera legalari buruz bakarrik hitz egiten, bere istorio osoaren berri eman ohi du.

Zenbaitetan diskriminazio, emakumeen tratu txar eta umeei lotutako arazoak ere azaltzen dira eta egoera hauen aurrean, SOS Arrazakeriak zerbitzu publiko eta pribatuaren informazio zehatza du. kontaktu sare zabal bat daukate arazoari aurre egiteko. Euren ez daukate jendea egon ahal izateko pisurik baina euren kontaktuen bitartez nora joan ez daukan pertsona bati bere-

hala aurkitzen diote gaua non eman.

Azaldutakoak azalduta, argi eduki behar da SOS Arrazakeria ikuspegi global batekin planteaturik sortu zela eta nahiz eta behar dutenei laguntza eman, hau ez dela euren lehenengo kezka. Darabilten ikuspegia zabal dela eta, ez daude etorkina modu asistentzialan soilik laguntzeko lanean. Euren beste, beste, estranjeria lege espainola eta jarrera arrazistak aldatu nahi dituzte. Lege horiek geure Europan egiten dira eta jokaera arrazistak gure gizartearen daude. Etorkinen kontrako bortizkeriak hementxe dauka iturburua. Beraz, talde honetako planteamenduaren arabera premiazkoa da gizartearen aldatzea eta honek etorkina laguntzera darabitu zuzenean. Gure gizartearen ohi diren jokaera onartezinen aurka borroka egin behar da.

## MODAKO KONTUA

Emigrazioaren gaia itzalpean egon da denbora luzez, urte askotan ez dugu ia ezertxo ere jakin kontu honi buruz. Baina orain dela urtebetetik hona etengabeak dira hedabideetan emigrazio eta etorkinei buruzko albisteak. SOS Arrazakeriak kide batek azaldu zigunaren arabera, honen arazoia politikoa da eta jada gai elektoral bihurtu da. Orain ez dago lehen baino patera gehiago telebistan gero eta irudi gehiago agertzeak sentsazio hori eman badiezaguke ere. Ondo dago gai hauek tratatzea, baina talde honek arazoaren sustraira joaten ez dela salatzen du. Arazo larrienak ez dira mafiak, ez da prostituzioa ezta enpresari esplotatzaileak ere. Guzti hau gertatu eta onartzen bada horretarako bidea ematen duten legeak daudelako izango da.

## ZAPALKETA

Etorkinek pairatzen dituzten abusuak oso latzak dira. Gero eta sarriago, esaterako, zerbitzu domestikoan paperik gabeko etorkinak daude, batez ere, Kolonbia edo horrelako parajeetatik etorritakoak.

Uste baino esplotazio egoera gehiago ematen dira baina etxe barruko kontuak direnez oharkabe pasa dai-



tezke. Arazo pribatuaren izaera daukate eta honen aurka gutxi egin daiteke. Bestalde, kontutan eduki behar da emakume hauek egoera ilegalean daudela eta zaila izaten dela inongo salaketarik egitea. Gainera nora joan ez dutenez eustea baino ez zaie geratzen. Horrela ba, gizarte eta pertsonen portaera aldatzeko esperantzaz gogor dihardu lanean S.O.S Arrazakeriak. Jendearen sentsibilizazioan sakondu nahi dute eta errespetuan zein berdintasunean oinarritutako gizarte bat eraiki.

## Bazkide txartela

Izen deiturak: \_\_\_\_\_ ENA zenbakia: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_ Herria: \_\_\_\_\_ Posta kodea: \_\_\_\_\_  
Telefonoa: \_\_\_\_\_ Lanbidea: \_\_\_\_\_ Jaioteguna: \_\_\_\_\_

### Partehartze mota:

- Bazkide soila   
Ekintza jakinetan laguntzaile   
Lantaldeko partaide

### Ordainketa:

Kontu korronte bidez   
Asapalaren kontuan   
3035 0071 6 071 105864 2

### Kuota korronte bidez

- 500 pta   
1000 pta   
2000 pta   
\_\_\_\_\_ pta

**ASAPALA**  
KULTUR ELKARTEA  
Iturriaga 55 1. Erkerra 48004 Bilbo  
Telefonoa: 944 7354 48  
E-posta: asapala@euskalnet.net



# AZTERKETAK GAINDITZEKO ZENBAIT PROPOSAMEN

Ikasi barik, noski



**Otsaila izan ohi da ikasleentzat hilabete latza. Aurreko hilabete edo asteetan burua behar bezala jantzi ote duten frogatzeko unea. Trantze estu horretan euren jakinduria, memoria eta adoreaz gain badaukate euki bestelako laguntzarik. BERTON hortxe egon da, begiak zabalik, XXI. mendeko lehenengo azterketetan teknologia berriak txuletagintzan zelan erabili diren jakiteko asmoz.**

**Testua: Iratxe Ruiz**  
**Argazkiak: Iñigo Azkona**

Badirudi aspaldiko garaietan azterketak izan ere ez zirela. Gaur egun ezagutza neurtzeko bide hau eguneroko ogia bada ere ez dirudi oso onartua denik ikasleen artean. Dakizun guztia ebaluatzeko irizpide nagusitzat jotzen dute baina oso ziurra dela ezin dugu esan. Horretarako arrazoiak egun txarra izatea, justu galdetzen dena ez jakitea, apunteak kaxkarrak eta asti eza aipatu daitezke, besteak beste.

Bestalde, bide oso ziurra ez delakoan gaude zeren eta azterketa orrian idatzitakoa ikasitakoa izan beharrean kopiatuta izan daitekeelako. Modu sinple batean esateko: "txuletak" eta antzeko teknikak sarri erabiltzen direlako

ikaskideen artean. (Eta orain gure galdera, "zer gertatuko ote da oraindik aurrera Europar Batasunak txuletak debekatu baditu?" eta erantzuna: "eta noiz izan dira legezko?". Ja, ja!)

Txuleten eta txibateoaren mundua berezi eta injenioz bete delako esan dezakegu eta hori frogatzeko zenbait modu aurkeztuko ditugu. Gaurregungo teknologia modernoek eskaini dezaketen abantailak alde batera utzita, aspaldidanik eta denok noizbait erabili ditugun bideak daude. Apunte edo liburua mahai azpian uztea eta ateratzea; "txuleta" edo letra txikian idatziriko "laguntza apunteak" poltsikoan gordetzea; azterketa hasi aurretik zenbait



datu mahaian idaztea; aldameneko lagunari bigarren galderan zer erantzun behar den galdetzea; bere azterketa behin amaituta zure mahaira pasatzea edo alde aurretik azterketa orriaren tankera bera duen beste orri batean galdera idaztea gero orri hori entregatzeko asmoz; gortinetan txuleta itsastea, kalkulagailuan formulak idaztea, latineko hiztegiak deklinabideak gordetzea eta abar luze bat.

## NESKATIL ETA MUTIKOAK

Bizitzako beste hainbeste arlotan bezala neska eta mutilen arteko bereizketa nabari daiteke txuletak egiterakoan. Hau da, neskek badute zenbait abantaila: gonapean txuleta jartzea edo bularretakoan goma baten bidez maneatzen den txuleta eraikitzea esaterako (elastikoan txuleta goma baten bidez jarriz). Eta ordenagailuaren mundu multimediatiko honen aurretik, mutilek gehien erabiltzen zuten sistema honako hau zen: zapataren azpikaldean idaztea, txuleta alkondararen barruko partean ipintzea edo erloju moderno horietako batean zerbait apuntatzea. Oso erabilia eta aproposa den beste teknika bat idazkortza gardean konpas edo puntzoi baten bitartez eta beti pazientzia handiz idaztea da. Nahiz eta bide zaila izan irakurtzerako orduan erraza suertatzen da!

Pazientzia eta plastika lanetan abila izatea eskatzen duten beste teknika pare bat aipatuko ditugu segituan. "Rodilo" izenez ezaguna dena eta haren hurrengo edo bertsio moderno dena. Txuleta orria zabal ordez luze moztuko dugu eta bere alde bietan "txupa-txups" makiltxo bi jarri-

ko ditugu. Orduan bi makilak elkartu arte biraka hasiko gara. Gai luze bat espazio nahiko murriztuan idatzita izango duzu orduan. Eta era modernoa honako hau da: goma baten bidez besora lotutako papertxotik tira egin eta eskuan daukazu. Arriskua hurbitzen zai-zunean barrura laster batean sartzeko gomatik tira edota besoa luzatu baino ez daukazu.

## KONEKTA ZAITEZ

Garapena eta teknologia gizarteko bazter guztietara heldu bada, txuleten mundu honetara ere heldu eta baliogari bilakatu da. Garai batean txuletak eskuz eta letra txikian egiten baziren ere, gaur ordenagailuaren laguntza besterik ez dugu behar letra txiki eta argi batez apunteak eskupean izateko. Testua idatzi ostean selekzionatu egiten da eta bakoitzaren ikusmenaren arabera letra tamaina 5 edo 6an jartzen da. Eskumako



marjina 6 zenbakian jarriko dugu modu honetan testuaren itxura estua izan dadin. Baina abantaila guzti hauek gutxi balira gaurko scanerraren bidez liburua jarri baino ez duzu egin behar nahi duzun tamainan agertzeko!

Azken aldiko mobilen moda lagungarri izan daiteke esku-rik erabili behar ez duzun horietako bat hautatuz gero. Orduan baten bat lagundu beharko zaitu kanpotik. Eta puntako teknologiaren erabiltzaile batentzat bide eroso izan daiteke zinta batean ikasgaia grabatzea eta aurikular baten bidez dena lasai-lasai entzutea. Kontrol remoto eta antzeko sistemak ere noizbait erabiltzen direla badakigu baina hori guretzat baso ezezaguna denez, ez gara hortan sartuko.

Dena den aipatutako edozein bide erabiltzeko abila izan behar zarela esan beharrik ez dago. Lotsati samarra bazara eta inizatibarik ez baduzu hobe duzu tramankulu guzti hauek prestatzen denbora luzea eman beharrean liburua- ren aurrean jartzea!





Landak itzitako argazkia

## MORROKO MEATEGIAK

Bilbo aldeko burdina famoso izan zan mundu zabalean. Lurraren barru-barrutik ataraten bihar handia egin izan da geurean. Oraingo erretratuan Morroko meategia ekarri dogu, orain dala hainbat urte zelangoa zan ikusteko. Biharginek egindako zulo handiaren albo-alboan Olleríaseko etxeak dagoz bata bestearen ondoan. Gaur etxe horreetarik gehienak hortxe bertan dagoz, meatzeko zuloaren ondoan, zulo hori etxeak noiz egin zain dagoala.

Erretratuan, zulo barruan etxe baten teilatua ikusten da.

Juan Olabarriaga izan zan meategion ugazabea. Gerra aurrean bertan hirurehun behargin jarduten eban eta hamar zaldi egozan bagoietatik tiratuteko. Meategia 1970 urte aldera arte segitu zan.

## ONINTZE SALAZAR

*“Meteorologook hurrengo egunetako eguraldia askotan igartzen dugu”*

Hogeita bederatzi urtetako mahatsorri honek egungo gazteek gutxi aukatzen dituzten metereologi ikasketak egin eta bere ibilbide profesionalari ekin zion telebistaz-telebista, duela gutxi Tele 5 katean finkatu den arte. Madril en egiten du lan eta oso gustura dago. Hala ere, Santutxura bueltatzea gustatuko litzaiokeela aitortu digu nahiz eta auzoko ihauterietan zein eguraldi egingo duen esatera ausartu ez den.

Testua: Irune Berro Urrizelki  
Argazkiak: Iñigo Azkona.





**Tele5 katean meteorologo lanetan zabilta, zer ikasi zenuen baina eguneroko jende askok zuk eta zure lankideek ematen dituzuen eguraldi iragarpenen zai egoteko?**

Fisika ikasketak egin nituen unibertsitatean. Meteorologi lanetan ibiltzeko egun hiru aukera daude. Aukera bat EEBBetan meteorologia karrera ikastea da baina hemen, estatu espainiarrean bi aukera baino ez daude: Fisika ikasi eta airearen espezialitatea hartu edota Geografia ikasi eta geografia fisikoa hartu espezialitate bezala. Ni Leioan Fisika ikasten hasi eta karrera Bartzelonan amaitu nuen bertan bakarrik baitzegoen nik egin nahi nuen espezialitatea; airearen fisika.

**Ikasketak amaitu eta zer nolako aukerak izan zenituen?**

Karrera amaitu aurretik eta oraindik Leioan ikasten nuela, ETBrako casting bat egin nuen. Horren ondorioz udan hilabete batetarako deitu ninduten eta bertan izan nintzen lanean. Ondoren eta urte sabatiko bat igaro ondoren Bar-

tzelonara bueltatu eta master bat egin nuen. Masterra amaitu eta Tele5n ibili nintzen uda batean ordezkapen lanean. Hori bukatu eta Bartzelonan Canal Satelitek duen kate meteorologiko baten ibili nintzen bi urtez; Canal Meteon. Ondoren Tele5n pertsona bat behar zutelara eta ni deitu ninduten. Geroztik bederatzik hilabete daramatzat bertan lanean.

**Agerian da lanbide askotan bezala honetan ere lan aukera gehiago dagoela Madril partetik, ez?**

Bai. Hemen telebistan lan egiteko behintzat ETB baino ez dago, Madrilen osteratu leku mordera dago; Tele 5, Antena 3, TVE,... Bartzelonan ere ez dago askorik. Aipatu dudana Canal Satelitek duen Canal Meteo kenduta ezer apartekorik ez dago. Gainera orain, nahiz eta telebistan agertu ez, badaude sortzen ari diren enpresa berri batzuk. Hauek enpresentzat edo partikularrentzat eguraldi aurreikuspenak egiten dituzte, eta guztiak, bat izan ezik, Madrilen daude. Beraz, dudarik gabe lan aukera gehiago

dago Madrilen inon baino.

**Batzutan goizeko albistegietan ikusten zaitugu, beste batzutan eguerdian eta askotan agertu ere ez zara egiten. Zein modutan antolatzen duzue lana eta zein da zure lana zehazki?**

Momentu honetan lau pertsona gabiltza eguraldiaren departamentuan lanean. Batek goizekoa aurkezten du, Mario Picazok eguerdikoa eta gauekoa aurkezten ditu eta beste batek asteburukoa. Nire postua aldiz, egunean zehar aurreikuspenak egitea da. Beraz, kamaren atzean egiten den lana da nirea. Dena den, norbait falta denean nik egiten ditut aurkezpen lanak, horrexegatik agertzen naiz batzutan eta beste askotan ez.

**Zelan egiten duzue lan aldi berean Autonomi Elkarte desberdinetan aurkezle bera azaltzeko?**

Beno, Tele5k deskonesioak egiten ditu. Hau da, albistegiko azkenengo hamar minutuetan Komunitate Autonomo desberdinetan bertako albisteak lantzen


ditu. Gu deskonesio horietan guztietan azaltzen gara eta horretarako arinago grabatu egiten dugu; hau da, ez dugu zuzenean lan egiten baizik eta ordu bete gutxi gora behera arinago grabatutako bideoen bitartez.

**Eguraldi aurreikuspenak egiterakoan zein metodologia erabiltzen duzue? Satellite eta horrelakoan bitartez egiten duzue lan ala zerura begiratu eta gogora etortzen zaizuen bota egiten duzue?**

Ez, ez. Guk ikasi dugunaren arabera egiten dugu lan. Meteorologiaren alorrean badaude aurreikuspenak egiteko bi modu. Bata da ikusten duzunarekin prebisioa egin eta hori da baserriar eta artzainek egiten dutena. Beraiek tenporak, ilargia eta horrelakoak erabiltzen dituzte oinarri, eta epe luzerako aurreikuspenak egiten dituzte. Nik, berriz, nik eta meteorologia ikasi dugunok, modeloak erabiltzen ditugu. Alde batetik ordu erdi argazkia ematen digun satelitea dugu. Horren bitartez momentu horretan bertan dagoena jakin dezakegu, borrasarik dagoen, antizikloirik bai, ez, non,... Ondoren informazio hori dau den modelo desberdinetan aplikatu eta eguraldi aurreikuspenak egiten ditugu. Modelo hauek, lege fisikoak erabiltzen dituzten modelo matematikoak dira eta guk hauek eta internet erabiltzen dugu. Dena den, hemen bada funtsezko kontu bat eta hori esperientzia da.

**Gertatu zaizu noizbait egin duzun aurreikuspenaren kontrako eguraldia egotea?**

Bai, askotan. Dena den, guk askotan igarri egiten dugu eta halakoetan inor ez da gogoratzen guk aurreko egunean eginiko aurreikuspena zuzena zela, baina behin erratuz gero... Behin erratuz gero, badirudi beti erratzen zarela eta jendeak behin eta berriro gogorarazten dizu. Guk konprobatuta daukagu, ehuneko portzentai oso altu batean igartzen dugu. Gertatzen dena da ez dugunean igartzen asko nabaritzen dela. Erratu nintzela gogoratzen dudana azkenengo aldia Bilboko jaietan izan zen, bazirudien euria egingo zuela, nik lagunei komentatu nien eta denak aterkiarekin atera ginen eta gero asma dezakezu zer gertatu zen. Zerua oskarbi, eta lagun guztiak ni bazila-tzen. Dena den, nik umore onez hartzen dut hori. Nire lana da,



nik gustoko dut eta erratea oso erraza da, beraz, erratzen naizenean, erratu naiz eta kitto.

**Askotan gertatu izan da Aste Santurako eguraldi ona iragarri eta gero kriston eguraldi txarra egitea. Entzun da eta esan ere, ostalaritzaren presiopean egindako eguraldi iragarpenak egiten direla. Egia al da hori?**

Ez, inondik inora. Gainera duela hiru edo lau urte kontrakoa gertatu zen hain zuzen ere. Ni orduan ez nengoen lanean baina gertatu zen, antza, komunikabide guztietan eguraldi txarra iragarri zutelara Aste Santurako eta azkenean ez zen horrela izan, baina orduko jendeak hotel erreserbak anulatuak zituen eta jende asko ez zen ezta bere herri edo hiririk mugitu. Honen ondorioz kriston bronka egon zen hotelekin. Honekin esan nahi dut ez dugula inolako kontakturik ostalaritzarekin. Guk gure lana modu independentean egiten dugu. Bai gertatzen da horrelako datetan kontu

gehiagorekin esaten ditugula gauzak jendea guk esaten dugunaren zain egoten baita.

**Badira urte batzuk Lurrak berotegi efektua nozitzen duela dakigula. Lurreko tenperatura igo da, gehiago igoko ei da ere eta itsasoko maila geroz eta altuago da. Ba al du horrek eraginik zure eguneroko ihardueran?**

Bai, horren inguruan datuak entzuten ditut eta zenbait informe irakurri ditut ere baina nire eguneroko lanean nik ez dut horren eraginik nabaritzen. Bai entzuten dira komentarioak lehen neguak hain hotzak ez zirela eta abar baina esan beharra dago eguraldiak antiziklo batzuk dituela eta agian berrogeita hamar urtetan ez dago euri jasa handirik edo, baina gero gauza horiek aldatzen dira.

**Madrilen bizi zarenez gero ez dakit jakingo duzun baina aurten Euskal Herrian negu epela izan dugu. Hai-**







### zetsua baina epela. Udaberria edota Santutxuko ihauteriak zelan datoz-kigun esatera ausartuko zinateke?

Ez. Ez dut ideiarik ere. Hori tenporak begiratuta artzainen bati galdetu behar-ko litzaioke. Guk ez ditugu epe luzerako aurreikuspenak egiten. Guk lanerako erabiltzen ditugun modeloek hiru egunetako aurreikuspena egiteko balio dute. Askoz jota aste beteko aurreikuspena egin dezakegu baina epe luzeagorako...

### Madrilen denboralditxo bat daramazu lanean. Hala ere, gustatuko litzazuke hona bueltatzea eta hemen lan egin ahal izatea?

Madrilen oso gustora nago. Denetarik dago baina jende oso jatorra ere bai. Dena den, nahiz eta han lanean oso gustora egon, egia da hona bueltatzea gustatuko litzaidakeela. Nire lana asko gustatzen zait, gehiegi gustatzen ez zaidana Madril da baina beno, bi edo hiru urte egoteko ondo.

### Madrilen eta Tele5n lan eginez, aurpegi ezagun batzuk ikusiko zenituen

### noizbait, ez?

Bai. Makilatza noanean jende asko ikusten dut, baina ikusi baino ez. Ez dut harremanik beraiekin. Ikusi, ikusi Carlos Sobera, Maria Teresa Campos, Paula Vazquez, Rociito, Al Salir de Claseko aktoreak eta El Informal saiokoak, besteak beste, baina esan bezala ez dut beraiekin harremanik, ez dut inoiz beraiekin hitz egin.

### Nahiz eta metereologiaren arloa telebistako oso arlo zehatz bat izan, gustatuko litzazuke egun edozein telebistan dagoen programatariko batean parte hartzea edo existitzen ez den besteren baten?

Ingurugiroari buruz edo klimari buruz hitz egiteko programarik balego, bertan aritzea gustatuko litzaidake. Ez albistegietan bezala zein eguraldi egingo duen esateko bi minutu besterik ez dituzula. Niri gustatuko litzaidake azaltzea zergatik hau edo bestea, gainera jende asko interesatua dago gai honekin. Horrelako zerbait gustatuko litzaidake baina ez besterik.

### Zer duzu nahiago kamaren aurrean edo atzean lan egin?

Lasaiago egoten naiz kamaren atzean ez naizelako ezertaz arduratu behar. Ez naiz makilatu behar eta nahi dudana moduan jantzi naiteke baina egia esan aurkezteak badu bere xarma. Nik oso ondo pasatzen dut grabatzen dudanean eta gero gainera horrek bere kontentsazioa dauka. Lan bat egin eta guztiek ikusten dute zuk egindako lana. Dena den, nire helburua ez da mundu guztiak jakitea nor naizen ni edo jakitea non egiten dudana lan. Ez, ezta gutxiago ere.

### Zein aholku emango zenioke metereologia ikasi ala ez ikasi dudamudatan dagoenari?

Oso polita dela eta anima dadila. Gainera gero eta lanpostu gehiago dago. Orain telebista guztietan dago pertsonaren bat eta ETBn esaterako, beste lanpostu bat sortu dute departamentu horretan. Nik uste dut lana egon bada-goela baina batez ere jende gutxi ikasten duelako. Horrez gain eskaera ere handitu da. Lehen gehien bat arrantza-le eta baserritarrentzat zen (izozteren bat egongo den edo) eta orain gizarte osoarentzat da oro har; eskiatzera, mendira, hondartzara... goaz eta ea zer eguraldi egingo duen jakin nahi dugu. Gero eta eskaera gehiago eta zabalagoa dago. Beraz, nik jendea hau ikastera animatuko nuke. Arazoa da Euskal Herritik kanpo ikasi behar dela, ondoren seguraski Euskal Herritik kanpo lan egiteko.

### Amaitzeko, nahiz eta lan kontuengatik Madrilen bizi zaren, zein da Santutxu auzoarekin duzun harremana?

Beno, ni astebururo nator Bilbora baina ez naiz gehiegi ibiltzen Santutxutik, lagunak beste auzo batzuetakoak baitituz. Hala ere, hau nire auzoa da eta ahal dudana guztietan bueltatxo bat ematen dut hemendik gustora asko.

## GALDERA LABURRAK

- **Astebururako plan bat:** mendira joan
- **Herri bat:** Espejo
- **Izen bat:** Ainara
- **Abesti bat:** Eperrak
- **Data bat:** apirilak lau, nire urtebetetzea
- **Liburu bat:** Mario Benedettiren Primavera con una esquina rota
- **Eguraldi bat:** eguzkitsu
- **Zinema ala antzerkia:** zinema

# Non harrapatu zintuen Tejerok orain hogeit urte?

### IGOR (SANTUTXU)

Eskolan nengoen. Artean hamar urte neukan. Jendearen mugimenduz eta esamesaz akordatzan naiz. Ikara orduan ez. Geroago konturatu gara zer izan zitekeen.



**PILI (SANTUTXU)**  
Kalean enteratu nintzen. Momentuan apur bat urduri bai baina gero lasai.



**KEPA (GALDAKAO)**  
Tentsinoa etxean itzela. Aber zelan joango zan gauzea. Jendea kalean larri. Neu orduan Ugaon bizi nintzan.



### MARIA ANGELES (SANTUTXU)

Iturribiden bizi nintzan orduan. Oso txarto pasa gendun. Pentsa neban gure amets guztiak lurre-ratuko zirala berriro. Beldur? Bai. Demokraziagaz dena konponduko zala pentsetan genduan eta oraindik...

**AMAIA (TXURDINAGA)**  
Etxean negoen, lanetik etorri berria. Etxean telebistari eta irratitari lotuta eman genituen orduak. Gauean hanketan min handia nuen, urduritasunaren ondorioz.

**LUZIANO (TXURDINAGA)**  
Itsasoan nenbilen beharrean. Canadá, Vancouverren gengoan. Lasai hartu gendun. Dana pasatuta egoan geuk jakin orduko.



**MAITE (SANTUTXU)**  
Telebista ikusten egon ginen. Oso momentu larria izan zen. Nire nebak "Deia"n egiten zuen lan eta berari deitzen genion zer pasatzen zen jakiteko.



### Paneraren etxeetako landa auzoentzako lorategia izango da


#### Etxegilearen kontra hemeretzi urtez auzitan ibili eta gero epaileek arrazoia bertakoei eman diete

Espainiako Auzitegi Gorenak Enrique Panera etxegileak aurkeztu errekurtoa bertan behera uztea deliberatu du. Erabaki honen ondorioz, Tomás Zubiria kaleko blokeetako auzoek etxe ondoko eremua lorategi gisa atonduta ikusiko dute. Panerak bertan altura handiko beste etxe bat eraiki nahian zebilen. Biztanleen garaipena hamazortzi urtez borrokan jardun ostean etorri da.

Tomás Zubiria kalean lau bloke erraldoi eraiki eta gero, Enrique Panera etxegileak 1986an bosgarrena altxatzeko baimena lortu zuen. Udalak eman eta Udalak kendu. Bost urte beluago, 1991an, etxe berria egiteko lanak hasi barik zeudela ikusita, Bilboko Udalak lizentzia agortuzat jo zuen.

Baimena galdu eta gero Panerak Udala auzitara eraman zuen. Erkidego autonomoko Auzitegi Nagusiak pleitoa aztertu eta sententzia eman zuen Udalaren alde. Epaileon ustez, lizentzia baliogabetzean Bilboko Udalak artez jardun zuen. Erabaki honekin pozik ez eta Panerak Espainiako Auzitegi Gorenera jo zuen helegite batez. Eta hor ere ez. Bosgarren Aretoko epaileek Bilboko Udalak lizentzia indargabetzean behar bezala jokatu zuela baieztatu dute.

Erabaki honen ondorio nagusia begi bistakoa izango da.



Bilboko Udalaren Plan Orokorrek eremu horretan lorategia atontzeko agindu zuen 1992an "etxeak egiteko lizentziarik ez balego". Epaileek horrelakorik ez dagoela esan eta gero Paneraren blokeen gerizan parketxoak egokituko da.

Paneraren etxeak Bilbon "hirigintza basatia" jaun eta jabe zebileneko garaioak dira. Etxegileak Solución Centro deritzona Begoña, Zurbaran eta Uribarri artean igarotzearen truke lau blokeok altxatu zituen. Etxeotan gaur egun 566 famili bizi da.

### Auzokideak Zabalbide kaleko egoeraz kexu dira

#### Fika kaletik behera bide arriskutsu eta zaratatsua dela diote

Zabalbide kaleko beheko alderdia, Fika kaletik behera, oso bide arriskutsu eta zaratatsua dela esanez kexuka azaldu dira egunokaz inguruetako bizilagunak. Auto jario etenbakoa, espaloi estuak, aldatzaren gogorra eta trafikoa gora eta behera ibiltzea dira bertan bizi direnentzako arazo iturriak.


Auzoek esan dutenez, espaloiaren estua oso arazo handia da. "Hain meharrak dira ezen bi lagun batera ez baitira kabitzen", azaldu dute. Zer esanik ez, umeentzako aulkiak daramatenak be estu eta larri dabilta Zabalbideko alderdi honetatik. "Horrelakoetan baten bat kaminora jaitsi behar da eta ondorioz autoen beldur ibiltzen gara", esan dute. Sarritan oinezkoak harrapatzen dituzte automobilerik.

Asfaltatua be nahikoa txarto dagoela eta kexu agertu dira auzokideak. Eta istripu gehien duen erreboltaz ere ezin ahaztu. Fikatik behera San Antone-rantz azken erreboltan auto asko bidetik atera eta alboko etxeen kontra joaten dira. Euria denean, jakina, arriskua nabarmen handiagotzen da. Arazoen zerrenda osatzerakoan, zaratak ere ezin dituzte bazterrean laga. Trafikoak dakarren kutsadura akustikoa nahikoa altua da eta gauaz batzutan ezin ei da behar den moduan lo egin.



#### PROPOSAMENA

Bertako bizilagunek kexuak ez eze proposamenak ere agertu dituzte. Ondorioz, Mina del Morroko urbanizazioa hortxe bertan dagoela aprobetxatuaz, Santutxutik beherantz trafikoa galarazi nahi dute. Jaitsi behar duenak Mina del Morrotik egin dezala, alegia. Horrela, Zabalbide igotzeko baino ez utzita, espaloiak zabaldu eta autoen jarioa ahuldu egingo dela uste dute. Eginbehar hauekin batera, jakina, kalea behar bezala asfaltatzea ere eskatzen dute.



# ASAPALA

## KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabilta


**Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!**

Hemen gagoz:  
Iturriaga 55, 1. Ezkerra  
Tfnoa. : 944735448  
E-posta: [asapala@eusnet.org](mailto:asapala@eusnet.org)

E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K





# Euskararen aldeko astea Santutxun martxoaren amaieran

Auzoko hainbat talde elkartu da antolakuntza lanetan jarduteko

Euskal Astea ospatuko dute Santutxuko euskaltzaleek martxoaren amaieran. Hilaren 23 eta 31 bitartean hainbat ekitaldi egingo da auzoko taldeen eskutik. Bertsolariak, jaiak, umeentzako olgetak, dantzak eta kontzertuak kateatuko dira Korrikaren hamabigarren edizioa Santutxun agertuko den unera arte. Astea martxoaren 23an edegiko da arratsaldeko zazpi ta erdietan Karmelo plazan botako den pregoiarekin. Mezua trikitixa eta fanfarien musikaz girotuta etorriko da. Biharamunean umeentzako festa izango da plaza horretan bertan arratsaldeko bostetatik aurrera. Umeek nahi beste olgeta egiteko parada eukiko dute, euskaraz, jakina.



Zapatu horretan bertan, iluntzeko zazpi ta erdietan, bertso saio polita egingo da Sorgintxulon. Kantatzeko ardura Arkaitz Estiballes, Aritz Lopategi, Iratxe Ibarra eta Unai Iturriagarena izango da. Bostehun pezetako sarreratxo ordaindu beharko da.

Domekan, hilaren 25ean, Dantzari eguna egingo da. Hamabietatik aurrera plazaz plaza arituko dira auzoko dantzariak kanpotik etortitako hainbaten laguntzaz. Arratsaldeko bost eta erdietatik aurrera dantza agerraldia egingo dute Hockey enparantzan.

Astelehena libre hartu eta gero asteartean segituko du egitarauak. Ber-

tso paper lehiaketaren sari banaketa egingo da arratsaldeko hiru eta erdietatik aurrera Basarrate plazan.

### ZINEA ETA KONTZERTUAK

Eguaztena, hilak 28, zinemarentzako gordeta dago. Sorgintxulon iluntzeko zortzietan laburmetrai emanaldia hasiko da. Geroago laburmetraietako zuzendariekin solasaldia egingo dute.


Biharamunean, toki eta ordu berean -Sorgintxulon zortzietan-, Morau abeslariaren kontzertua. Sarrera debalde.

**Barikua** Korrika Txikiaren eguna

izango da. Goizeko hamaika eta erdietan hasiko da Txurdinagan eta arratsaldeko hiru eta erdietan Santutxun.

**Zapatuak** beste kontzertu bat ekarriko du. Frik eta Jaingo Barik taldeek gabeko bederatzietatik aurrera joko dute Basarrateko plazan. Eta egitaraua zarratuko duen ekitaldia, hamabigarren Korrika, egun horretan bertan ailegako da Santutxuko kaleetara.

Antolakuntza lanetan hainbat taldek hartu du parte. Besteak beste, AEK, Txixiribitz, Asapala, Gaztedi, Bertso Eskola eta Sorgintxulo.



## BEGOÑAKO ELEIZA ZAHARBERRITZEN

Begoñako eleizako albo bateko harrizko horma garbitzen dihardute egunokaz. Harriari itsatsitako zikinkeria zein kutsaduraren ondorioak kendu eta jatorrizko horma eta kolorea begi bistan lagatzen ari dira. Aldea dago gero!

(Iñigo Azkona argazkia)

# Ibilaldiak Eugi eta Goñi pelotariak jokoan jarriko ditu Arrigorriagan

Kultur egitarauak kantaldia, bertso saioa eta argazki erakusketa ekarriko ditu

Abusu ikastolak Ibilaldia'2001 dela eta kultur egitaraua prestatu du Arrigorriagan egiteko. Otsaila eta apirila bitartean kantaldia, esku pilota partidua, bertso saioa eta argazki erakusketa antolatu dute Abusuko euskaltzaleek. Jakina denez, Abusu ikastola, Abusu auzoa bera legetxe, Bilbo eta Arrigorriaga artean dago eta, ondorioz, Ibilaldia'2001ko arduradunek ekitaldiak batean zein bestean egitea deliberatu dute.

Arrigorriagarako prestatutako egitaraua otsailaren 23an edegi zen Mikel Urdangarin abeslariak polikiroldegian emandako kontzertuaren bidez. Modako abeslariaren kantaldiaren ostean hurrengo hitzordua martxoaren 9rako jarri dute. Egun horretan -barikua- gaueko hamar ta erdietan eskupilota partidua jokatuko da Arrigorriagako polikiroldegiko frontoian.


Partiduan Aspe enpresaren aurrelari ezagunenak neurtuko dira. Batetik, azken urteotako txapeldun handiena, Patxi Eugi agoizkoa. Bestetik, Arraiozko morroskoa, figura handia izateko dohaiez beterik egon arren bidea behin eta berriz errez galdu ohi duen Mikel Goñi. Atzean Eugik Xabier Imaz segurarraren laguntza eukiko du, Goñik Aitor Elgoro elgetarrarekin batera jokatuko duen bitartean. Partiduko sarrerak 3.000 pezetatan salduko dira.

### BERTSO SAIOA

Martxoan bertan, hilaren 17an, Ibilaldia'2001ko kultur egitarauak segida eukiko du Arrigorriagako polikiroldegiko frontoian. Oraingoan jolasean arituko direnak bertsolariak izango dira. Gaueko zortzietatik aurrera Igor Elortza, Aritz Lopategi, Unai Iturriaga eta Arkaitz Estiballesek jardungo dute bertsotan. Bizkaiko Bertsolari Txapelketa-konkordako finaleko laukoterik onena. Sarrera debalde.

Arrigorriagarako egitarauak apirilaren 2tik 11ra luzatuko den argazki erakusketa zarratuko da. Udaletxeko erakusketa aretoan jarriko dituzte erretratuok. Ikusgai astelehentik barikura arratsaldeko seietatik zortzietara egongo dira.

Honetaz gain, Bilbon be egitarau polita egin gura dute Abusu ikastolakoek. Besteak beste, Kepa Junketa eta



Hevia lako musikariak ekarri nahian dabiltza. Eta Ibilaldia denda Jardines kaleko bigarrenetan zabalik dagoela ahaztu barik. Bertan aurtengo material guztia topatuko du euskaltzaleak.



### LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan Ke-irteerak eta Ur-hodiak Eraikinetako edozein konponketa

### ANDAMIO BARIK

### TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22

### DAYTON

Kanpoko garagardoak Ronak eta txokorrak aukeran

www.bilbaoweb.com/dayton

Iturriaga, 92 Santutxu

### BASTERTXU



### TABERNA

Ricardo Bastida plaza

E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K







# GARAMENDI SASKIBALOI TALDEA (MONTAÑO)

Testua eta argazkiak: Itxaso Perez



Inguru hauetan Montañoko saskibaloit taldea deitzen diogu, eta zuzendu egin digutelako, bestela izenburuan txarto aterako litzateke izena.

Garamendi Kluba 1991 edo 1992ean sortu zen, Montañon Eskolan. Harrez gero jendea aldatuz joan da eta gaur egun Montañon ematen den irakaskuntza haur eta gazteekin zerikusirik ez duenez (ostalaritza modulu bat dago), bertan entrenatu eta jokatzeko duten arren jokalariek beste lekutakoak dira. 1996 urtean jendea behar zela-eta Montañoko entrenatzaileak Ignacio Ellacuria institutura joan ziren eskola hartako hainbat gazterekin hitz egiteko. Izan ere, egun dauden jokalariek gehienak Zurbaranbarrikoak dira, urte horretan joanak hain zuzen.

Klubean neska eta mutilak aritzen dira, orain gutxi arte nesken jubeniletako bi talde, seniorreko beste bat, eta mutilen seniorreko talde bat bazeuden. Gaur egun aldaketa txiki bat eman da, eta nesken taldeen kopurua alderantzizkoa da: senior talde bi eta jubenil bakarra. Mutilen senior talde bi daude. Hauetako baten inguruan arituko gara, baina bar-

katzeko esanez erreportaia egiterako garaian neska talderik zegoenik jabetuta ez geundelako. Hurrengo batean aukera emango diegu luze eta zabal.

Senior talde honek Herrialdeko 2. mailan dihardu. Une honetan igoerarako aldiari jokatzeko ari dira aurreko aldiari bigarren sailkatu direlako (gogoratu lehen sailkatua Zurbaran taldea izan

zela). Entrenatzaile gaztea daukate, Juanlu, baina hori ez da oztupo dauden lekuan egoteko. Are gehiago, etorkizunari begira beste talde batzuk baino egoera hobean daude.


### SASKIBALOAIA MAKAL

Jokalariek Ivan, Alex, Diego, David, Sergio S., Jose, Sergio, Josemi, Alfonso, Iñaki eta Andoni dira. Batz besteko adina 18-19 urtekoa da. Baina kezkatzen korik badaukate: inguruko eskoletan saskibaloiak ez du lehen zuen indarra eta atzetik oso jende gutxi dator. Dena den, daudenak ez dabilta handinahietan eta jokatzeko badute gustuko dutelako da, ondo pasatzeko batez ere. Gainera diru kontuetan ez dabilta asmo handietan murgiltzeko eran. Sos gutxi, gehien bat loterietatik ateratzen dutena. Aurten dirua itzultzea suertatu zaie eta kanasta berriak ipintzeko erabili dute.

Badakizue, zelaia polit eukiko dutenez, animatzen bazarete etxean igandeetan 12:30etan jokatzeko dute hamabostean behin.

# URKABUSTAIZ (706 metro)

Arabako Lezamatik



Bilbotik Urduñarako errepidetik joanda Amurriora heltzean eliza ondotik ezkerretara Murgiarantz joko dugu. Bide honetatik aurrera eginda "Lezama-Berganza" dioen txartela ikusiko dugu birritan. Bigarren bost kilometro beteko dira Amurriotik atera ginenetik. Apur bat aurrerago, gain eta bidegurutze batean etxe eder bat ikusiko dugu, jatetxe gisa atondua. "Bideko" dauka izena.

Jatetxe honen eskumatik ateratzen den bide asfaltatua hartuko dugu. Hemen-dik oso ondo ikus daiteke "Txibiartegaina" deritzon muinoko errepikagailua. Gure norabidea hauxe denez gero, bidetik zuzen segituko dugu eskumalderantz doazen beste bideei jaramonik egin barik. Bi kilometro egin eta azken baserriak pasatutakoan bide asfaltatua amaitu egiten da. Bertan laga genuen autoa.

Hemendik harrizko pistatik joango gara laster bidebanatze batera heldu arte. Eskumarako pista hartu beharko dugu eta aurrez aurre daukagun muinoa inguratuz Txibiarte lepoan bertan edo inguruan egongo gara. Errepikagailua gure ezkerrean geldituko da. Muino barrutik trenbidea Txartel kutxa burdinazko irudi batean dago. Badago ere inguruan gurutze handi bat. Guztira, ordu-bete

Txibiarte lepoan (C) pista utziko dugu eta eskumaldeko muino gaineretik eta hesiaren ondotik ateratzen den bidezidorrari ekingo diogu. Behin zabalera helduta, altuago dagoen muinorantz abiatuko gara. Segituan landa zabalak zeharkatuko ditugu eta San Pedro Urkabustaitz (706 metro) tontorrean egongo gara.

**PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOA!**

**SAAK**

**ADI**  
ASESORIA  
FISCAL - CONTABLE - LABORAL  
JURIDICO - MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08  
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza**



# "ASTROLOGIA NORBERE BURUA EZAGUTZEKO GILTZA DA" SORGINTXULON JAKINTZA HONETAN MURGILTZEKO TALDE BAT SORTU DA

Sorgintxulo gaztetxean astrologia taldea dagoeneko martxan jarri da. Irakaslea Eba da, Madrilen jaioa eta bertan hasi zen astrologia munduarekin harremanetan. Gaur egun Bizkaian bizi da, eta bere ustez "jendearen bibrazioa eta zabaltasuna agerian geratzen da, astrologiak lagun diezazuke esnatzen, baina hori norberak egiten du eta beste edozein bide erabilita ere lor daiteke, ez bakarrik astrologiarekin. Nahiko murriztuta bizi gara eta astrologia giltza bat da itsu ez egoteko, zeure burua ezagutzeko giltza da, baina ez da errezeta magikoa."

Testua: Arrate Díez

## Noiz sortu zen taldea?

Astrologia taldea kurtsoarekin batera hasi zen irailean. Astrologia norbere burua ezagutzeko erreminta bat da eta horretarako biltzen gara batez ere. Astean behin Sorgintxulon izaten dugu zita. Hasieran hamalau bat lagun hasi ginen biltzen, baina nahiko lan pertsonala denez, azkenean talde txikiagoa gara. Gaur egun jende gehienak ez daki astrologia zer den, jendeak daukan astrologiari buruzko informazioa orokorrean albiste txiki batzuetara murriztuta dago. Jendeak berehala klasifikatzen zaitu eta ez dakite benetan zer den eta zertarako balio duen.


## Zelan definituko zenukete zuek egiten duzuen?

Guk egiten duguna batez ere astrologia psikologikoa da, astrologiaren eta psikologiaren terminoekin nahaste bat egiten dugu eta hortik gure esperientziak ateratzen ditugu. Guk "jaiotze karta" eta zeinu zodiakalarekin jokatu

dugu, horiekin mapa bat egin eta pertsonalki elkar ezaugutzen dugu. Hauetatik ateratzen ditugu bai karta soziala zein karta pertsonalizatua.

## Zelan ikasten da astrologia?

Nahiko liburu daude publikatuta horren inguruan, baina interesgarriena jardutea da. Arte edo zientzia nahiko hermetikoa denez lehen kontaktua zailena izaten da, ez dauka zerikusirik ez esoterismoarekin ezta misterioekin, ez da batere erraza. Lehenengo inpresioa apur bat eskuragaitz izaten da, dena da simbologia arraroa baina gero apurka apurka zabaltzen joaten zara zeure intentzioaren arabera. Oso gizarte arrazionalizatua bizi gara, oso matxista dena gainera eta erraza izaten da dena aldrebestea. Gure buruaren barrura begiratzen dugunean gauzak gordinago ikusten dira, beraz oso jende gutxi nahi izaten du benetan astrologian aritzea. Geure lana makrokosmos



eta mikrokosmosa erlazionatzea litzateke, eta eguneroko bizitzan aplikatzen ahalegintzen gara.

## Zer ekarpen egiten du astrologiak?

Astrologia jakintza naturala da. Hortaz, ez da ona ezta kaltegarria ere, norberaren erabilerak bihur dezake on edo kaltegarri. Askotan deskalkifikatu egiten da, baina hori ezjakintasunagaitik egiten da, arte guztiak legez ez da berez on edo gaizto. Erabil dezakezu zure burua aberasteko edota fanatizatzeko, baina hori bakoitzaren araberakoa da.

## Taldeko kideak gizonezkoak ala emakumezkoak izaten dira?

Gehienak emakumeak izaten dira orokorrean. Gure ustez, emakumeak erraztasuna dauka bere barrura sartzeko eta geure zikloak kontrolatzeko, bestetik, gizonak historikoki eta sozialki beste jarraibideak izan ditu. Emakumezkoak urteetan zehar azalarazi ezin izan duguna




barneratu egin dugu. Beraz, erraztasun handiagoz kanporatzen dugu atmosfera egokian egonez gero. Gaur egun gizonezkoak hori ere aldatzeko prest daude eta parte hartzen duten mutilek oso konpromiso handiz egiten dute. Berehala ikusten da ze jende modu datorren eta bakoitza zertara datorren. "Barrua biluztu" behar da eta lortuz gero oso esperientzia aberasgarria da.

## Bestelako astrologia taldeekin harremanetan zaudete?

Euskal Herrian nahiko talde dabil astrologian eta gure artean ere harremanak izaten ditugu, bai interneten bidez zein bakoitzak duen informazioa eta esperientziak konpartituz. Astrologiaren interpretazioak aurpegi asko ditu,

batzuek pronostikoa egiten dute, beste batzuk modu pertsonalizatuan erabili, beste batzuek astrologia mundiala aplikatu, hau da, parametro asko daude astrologia barruan errealitate berdina interpretatzeko.



Biktimganako Laguntza Zerbitzua      Servicio de Asistencia a la Víctima

## Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA      GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia

**INMOBILIARIA**  
**Gelaya**  
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturrigaga, 92  
Tfnoa: 94 473 07 78  
48004 SANTUTXU - Bilbo

**Bikoitz**  
ARRLOPAK ★  
ZILARRA ★  
OPARIK ★

Part. Arsuaga      SANTUTXU  
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO  
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

**MESÓN**  
**TURETXE**

Santutxuko poteo gunean





# horoskopoa

**Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra. Zeure eguna datorrela eta, txarritxo apurtu beharko dozu laguneri zoezer atarateko. Zertako behar dozuz hogerlekook hortxe gorderik datorren urtean ez bajatzuz ezertako balioko?

**Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra. Behar handiegia egiten dozu. Hobe dozu lantokia itzi, bihotzeko kokorra eskutik hartu eta oporretan joatea. Zeuk ezean zeure ingurukoek eskertuko dabe.

**Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra. Negu Gorriak despeditu dira bai. Hertzainak be joan ziran eta Kortatu, Zika eta Eskorbuto historia liburuetan dagoz. Baina desastre itzela izanda be, ezin dozu egun osoa negarretan emon. Laga tabernazuloa eta bueltatu zeure beharrera. Ugazabea zara eta!

**Cancer:** ekainaren 21etik uztailearen 20ra. Oporretan lez sentitzen zara. Hobe dozu aprobetxatzea, laster batean jardunean iminiko zaitue eta. Sikeran behar hori ordainduta bada!

**Leo:** uztailearen 21etik abuztuaren 23ra. Osasunez makal, memoria be astiro dabilzu eta erreflejuak lokatuta dekozuz. Medikuañe jo barik, guk esango deusugu zer dozun:bart Santutxuko aratustetan azken taberna zarratu arte egon zara. Mayor Orejak diñoen legez, inprudentziak paga eitten dira.

**Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra. Telebista ona dala diñozu behin eta barriz. Zelan kritika zeinkez gero gazte makailuzaleak? Eurek behintzat badakie euren kaltegarria dala!

**Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra. Kantetan txarra zareala diño baina ez egin kasurik. Bertotan baldarra zareala diño baina ez egin jaramonik. Berbetan aspergarria zareala diño baina ez larritu. Jendeari kasu eginez gero ezingo zenduke ezer ez egin!

**Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra. Itxaroten emoten dozuz gauak eta buruko minez egunak. Horrela ezin dozu segi. Heldu behingoz bizitza adarretatik!

**Sagitarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra. Jose Marik Melitónen omenaldira joateko gonbidatu zaitulako harrituta? Hobe dozu bibotea afeitatu, jaitsi behingoz eskuin beso luzatu hori eta euskararen kontrako amorrazinorako txertoa hartu. Eta, faborez, kendueizu paparretik División Azularen intsigia herdoildu hori.

**Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra. Askatasunaren aldeko benetako borroka laster batean etorteko ei dago. Laga zurruta eta hasi zaitez zeu be askatasunaren alde brindisa baino zoezer gehiago egiten.

**Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra. Uger egiten jakitea da zeugan espero doguna. Baina aquarius izanagaitik ibiltzen be ikasi-beharko dozu inoiz, ezta?

**Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra. Aho bete hortz lagako dozuz danak. Zu zeuk egingo dozu bazkaria! Inoren laguntza barik! Eta berrogeita bost urte baino ez. Kontuz ibili latak zabaltzerakoan, argiñano!

# agenda

## MARTXOAK 6.

INDUSTRI INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALEAN. HITZALDIA. "EUSKAL ZIENTZIA SISTEMA. EBOLUZIOA ETA ETORKIZUNA". UNAI UGALDE. 7ETAN.

## MARTXOAK 8.

KAFE ANTZOKIA. "FALTRIQUEIRA". KORRIKA KULTURALA. GAUEKO 10ETAN.

## MARTXOAREN 9.

BILBOROCK. TRIKIBERTSO: ENE BADA!, BEÑAT GAZTELURRUTIA, IGOR ELORTZA. GAUEKO 8,30ETAN. IBILALDIA'01. ESKU PILOTA PARTIDUA. EUGI-IMAZ GOÑI-ELKOROREN AURKA. ARRIGORRIAGAKO FRONTOIAN.

## MARTXOAK 11.

EGUZKILORE MENDI TALDEAREN IRTENALDIA. SAN TIRSO HAITZA. BERNEDOTIK (ARABA).

## MARTXOAK 15.

KAFE ANTZOKIA. KONTZERTUA. NON DEMONTRE ETA ZEIN?. KORRIKA KULTURALA. GAUEKO 10ETAN.

## MARTXOAREN 17.

IBILALDIA'01. BERTSO SAIOA. IGOR ELORTZA, ARITZ LOPATEGI, UNAI ITURRIAGA ETA ARKAITZ ESTIBALLES. ARRIGORRIAGAKO FRONTOIAN.

## MARTXOAREN 17TIK 25RA.

DEUSTUKO JAIK. MARTXOAREN 23TIK 31RA. SANTUTXUKO EUSKAL ASTEA.


## MARTXOAK 25.

EGUZKILORE MENDI TALDEAREN IRTENALDIA. AIAKO HARRIAK. ARITXULEGITIK (GIPUZKOA).

## MARTXOAREN 31.


KORRIKA

GANDHI



*Bake-bideak erabiliz defendatu zituen bere herriaren eskubideak.*

I. ELLACURIA



*Bake-kulturaren ikurra*

M. LUTHER KING



*Ez da izan bera bezalakorik eskubide zibilen aldeko borrokan.*

**Gizaki guztiok bizitzeko eskubidea daukagu.**

**Segurtasun-eskubidea.**

**Askatasun-eskubidea.**

**Baina gure herrian, tamalez, eskubiderik funtsezkoena, bizitza-eskubidea, sarritan urratzen da.**

**Guztion esku dago bakea lortzea.**

**Ez dago indarkeria justifikatzerik.**

**Giza eskubideetan, salbuespenik ez.**

# GIZA ESKUBIDE

# GUZTIAK GUZTIONTZAT

## BIZITZA-ESKUBIDETIK HASITA

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia